Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

2026ZAUN0002

2026KO SAN PEDRO ETA SAN MARTZIAL JAIETAKO KONTZERTUETARAKO SOINU ETA ARGIZTAPEN EKIPOAK HORNITZEA, MUNTATZEA, DESMUNTATZEA, LAGUNTZA TEKNIKOA EMATEA ETA MANTENTZEAREN (LOTEKA) KONTRATAZIOA
CONTRATACIÓN DEL SUMINISTRO, MONTAJE, DESMONTAJE, ASISTENCIA TÉCNICA Y MANTENIMIENTO DE EQUIPOS DE SONIDO E ILUMINACIÓN PARA LOS CONCIERTOS DE LAS FIESTAS DE SAN PEDRO Y SAN MARCIAL 2026 (POR LOTES)

– *PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA* / PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS –

***ARLO SUSTATZAILEA* / ÁREA PROMOTORA**	KULTURA, HEZKUTZA, GAZTERIA ETA KIROL ARLOA / AREA DE CULTURA, EDUCACIÓN, JUVENTUD Y DEPORTES
***ESPEDIENTE KODEA* / CÓDIGO EXPEDIENTE**	2026ZAUN0002

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da San Pedro eta San Martzial 2026 jaietan egingo diren musika-ekitaldietarako beharrezkoak diren soinu- eta argiztapen-ekipo tekniko eszenikoak hornitzea, alokairuan ematea, muntatzea, desmuntatzea, laguntza teknikoa ematea eta mantentzea.

Kontratuaren xedea lote hauetan banatuta dago:

1. lotea: 2026ko ekainaren 6ko kontzertua (San Juan Plaza)
2. lotea: 2026ko ekainaren 19ko kontzertua (San Juan Plaza)
3. lotea: 2026ko ekainaren 20ko kontzertua (Urdanibia Plaza)
4. lotea: 2026ko ekainaren 23ko kontzertua (Urdanibia Plaza)
5. lotea: 2026ko ekainaren 27ko kontzertua (San Juan Plaza)
6. lotea: 2026ko ekainaren 28ko kontzertua (Urdanibia Plaza)

1. OBJETO DEL CONTRATO

El presente contrato tiene como objeto el suministro, en régimen de alquiler, montaje, desmontaje, asistencia técnica y mantenimiento de los equipos técnicos escénicos de sonido e iluminación necesarios para la realización de los eventos musicales que se indicarán en el marco de las fiestas de San Pedro y San Marcial 2026.

El objeto del contrato está dividido en los siguientes lotes:

Lote 1: Concierto 6 de junio 2026 (Plaza San Juan)
Lote 2: Concierto 19 de junio 2026 (Plaza San Juan)
Lote 3: Concierto 20 de junio 2026 (Plaza Urdanibia)
Lote 4: Concierto 23 de junio 2026 (Plaza Urdanibia)
Lote 5: Concierto 27 de junio 2026 (Plaza San Juan)
Lote 6: Concierto 28 de junio 2026 (Plaza Urdanibia)

2. EKITALDIEN EGUNAK ETA LEKUA

Ekitaldien banaketa honako hau da:

Lotea	Data	Lekua
1	2026ko ekainak 6 (22:00 h)	San Juan Plaza
2	2026ko ekainak 19 (22:00 h)	San Juan Plaza
3	2026ko ekainak 20 (22:00 h)	Urdanibia Plaza
4	2026ko ekainak 23 (22:00 h)	Urdanibia Plaza
5	2026ko ekainak 27 (22:00 h)	San Juan Plaza
6	2026ko ekainak 28 (22:00 h)	Urdanibia Plaza

Ordutegi horiek orientagarriak baino ez dira, eta ez dira lotesleak Irungo Udalarentzat.

2. FECHAS Y LUGAR DE LOS EVENTOS

Los citados eventos tendrán lugar:

Lote	Fecha	Lugar
1	6 de junio de 2026 (22:00 h)	Plaza San Juan
2	19 de junio de 2026 (22:00 h)	Plaza San Juan
3	20 de junio de 2026 (22:00 h)	Plaza de Urdanibia
4	23 de junio de 2026 (22:00 h)	Plaza de Urdanibia
5	27 de junio de 2026 (22:00 h)	Plaza San Juan
6	28 de junio de 2028 (22:00 h)	Plaza de Urdanibia

Los citados horarios son meramente orientativos y no vinculantes para el Ayuntamiento de Irun.

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: JN9U-W0KN-7FOR-IEMQ
Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
Iñaki Goikoetxea Arrufat TÉCNICO DE CULTURA (05/02/2026 08:15 CET)

Muntaketa- eta desmuntaketa-ordutegiak Irungo Udaleko Kultura Zerbitzuarekin koordinatuko dira, adierazitako datak baino behar besteko aurrerapenarekin.

Ekitaldiak hainbat tokitan egingo dira eta, horiek guztiak, aire zabalean daude. Udalak beretzat gordetzen du ekitaldiak beste espazio batzuetara lekualdatzeko ahalmena. Kasu hori ahalik eta lasterren jakinaraziko zaio kontratuaren arduradunari, eta esleipendunak aurreikusitako gainerako baldintzetan gauzatu beharko du kontratua.

Los horarios de montaje y desmontaje serán coordinados con el Servicio de Cultura del Ayuntamiento de Irun con antelación suficiente a las fechas indicadas.

Los eventos se realizarán en diferentes localizaciones, todas ellas a la intemperie. El Ayuntamiento se reserva la capacidad de trasladar los eventos a otros espacios. Dicho supuesto, será notificado al responsable de contrato a la mayor brevedad, debiendo la adjudicataria ejecutar el contrato en los demás términos previstos.

3. ESLEIPENDUNEN BETEBEHARRAK

3.1 Ekipoen zerrenda

Hornitu beharreko ekipoak Plegu honen **Eranskinetan** Lote bakoitzerako aurreikusitakoak izango dira. Esleipendunek adierazitako ekipoen baliokideak edo hobeak diren ekipoak eta sistemak aurkeztu beharko dituzte, prestazioei dagokienez.

Ekipoen zerrenda zehatza ez bada ere, Lote bakoitzerako abian jarri beharko diren gutxieneko ekipoak eta beren ezaugarriak adierazten ditu.

Eranskinek, bereziki, lote bakoitzari dagozkion kontzertuak egiteko talde/artista bakoitzak eskatzen dituen soinu eta argiztapeneko ekipo tekniko eszenikoen (riders) eskakizunen laburpenak jasotzen dituzte, eta/edo, hala badagokio, ohar argigarri batzuk, sarrera gisa.

Lizitatzaileek, kontratu honetarako eskatzen den eta administrazio-klausulen agirian zerrendatzen den legezko dokumentazioa gorabehera, proposamenean ekipamenduen eta elementuen ereduen zerrenda xehatua zehaztu beharko dituzte.

Ekipo guztiak funtzionamendu-egoera onean entregatu beharko dira, eta, gainera, aplikatu beharreko segurtasun-neurri guztiak bete beharko dituzte.

Esleipendunek arduratu beharko dira funtzionamendu egokia eta eguraldi txarraren aurkako babesa bermatzen duten ekipo osagarri guztiez (kableatu txikia, banaketako barne-koadroak, eguzkitarako eta euritarako karpak, …). Era berean, laguntza teknikoa eta horien mantentzea bermatuko dute kontratua gauzatzen den bitartean.

Esleipendunen kontura eta haien arriskupean egongo dira beren ekipo tekniko eta/edo musikalen zaintza eta segurtasuna, ikuskizunak egiten diren esparru edo perimetroan dauden bitartean. Irungo Udalak ez du inolako erantzukizunik bere galerarekin, lapurretarekin, hausturarekin edo hondatzearekin.

3. OBLIGACIONES DE LAS ADJUDICATARIAS

3.1 Relación de equipos

Los equipos objeto de suministro serán los previstos para cada uno de los Lotes en los correspondientes **Anexos** al presente Pliego. Las adjudicatarias deberán presentar equipos y sistemas equivalentes o superiores en prestaciones a los equipos indicados.

La relación de equipos, sin ser exhaustiva, indica los equipos mínimos y sus características que se deberán de poner en funcionamiento para cada Lote en cuestión.

Los Anexos incluyen, en particular, extractos de los requerimientos de equipos técnicos escénicos de sonido e iluminación (riders) exigidos por cada grupo/artista para la realización de los conciertos correspondientes a cada Lote, y/o, en su caso, unas notas aclaratorias a modo de introducción.

Los licitadores, con independencia de la documentación legal requerida para este contrato y relacionada en el pliego de cláusulas administrativas, deberán especificar en su propuesta una relación detallada de los modelos de los equipos y elementos ofertados.

Todos los equipos deberán entregarse en perfecto estado de funcionamiento, debiendo cumplir, además, con cuantas medidas de seguridad les resulten de aplicación.

Las adjudicatarias deberán encargarse de todos los equipos complementarios que garanticen el correcto funcionamiento y la protección contra las inclemencias de tiempo (pequeño cableado, cuadros de distribución internos, carpas para el sol y la lluvia etc.). Asimismo, garantizarán la asistencia técnica y el mantenimiento de los mismos durante la ejecución del contrato.

Serán por cuenta y riesgo de las adjudicatarias la custodia y seguridad de sus propios equipos técnicos y/o musicales durante su permanencia en el recinto o perímetro en que se realicen los espectáculos. El Ayuntamiento de Irun declina todo tipo de responsabilidad en relación con su pérdida, robo, rotura o deterioro.

3.2 Giza baldintzak

3.2 Medios humanos

Esleipendunek teknikari espezialista nahikoak izan beharko dituzte ekipo teknikoak garraiatzeko, kargatzeko, deskargatzeko, muntatzeko eta manipulatzeko.

Las adjudicatarias deberán con técnicos especialistas suficientes para trasportar, cargar, descargar, montar y manipular los equipos técnicos.

Zehazki, esleipendunek, gutxienez, dagozkien eranskinetan lote bakoitzerako berariaz adierazitako langileak izan beharko dituzte.

En particular, las adjudicatarias deberán contar, como mínimo, con el personal específicamente indicado para cada Lote en los correspondientes Anexos.

Esleipendunek zerga-arloan, lan-arloan eta Gizarte Segurantzaren eta Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloan indarrean dauden xedapenak bete beharko dituzte langile horiei dagokienez. Era berean, langileek laneko segurtasunari, higieneari eta osasunari buruz indarrean dagoen araudia betetzearen erantzule izango dira.

Las adjudicatarias deberán cumplir las disposiciones vigentes en materia fiscal y en materia laboral y de Seguridad Social y Prevención de Riesgos Laborales en relación con dicho personal. Serán asimismo responsables de que el personal cumpla la normativa en vigor en materia de seguridad, higiene y salud laboral.

3.3 Koordinazioa

3.3 Coordinación

Esleipendun bakoitzak kontratuaren arduradun bat izendatuko du, eta koordinatzaile bat zehaztuko ekitaldi bakoitzerako; eta hori koordinatuko da udalarekin, babes zibilarekin, tokia erabili dezaketenekin eta ekitaldian esku hartuko duten gainerako eragileekin.

Cada una de las adjudicatarias nombrará un responsable del contrato y definirá un coordinador por evento que será el encargado de coordinarse con el Ayuntamiento, protección civil, otros posibles usuarios del espacio y resto de agentes intervinientes en el evento.

Pertsona hori arduratuko da, enpresaren aldetik, ekitaldiko segurtasunaz.

Esta persona será el responsable de seguridad del evento por parte de la empresa.

Ekitaldiaren koordinatzaileak, teknikarietako bat izan ahalko denak, gutxienez 4 urteko esperientzia izan beharko du.

El Coordinador del evento, que podrá ser uno de los/as técnicos, deberá contar con una experiencia mínima de 4 años.

3.4 Erantzukizun zibileko asegurua

3.4 Seguro de responsabilidad civil

Adjudikaziodunek erantzukizun zibileko aseguru bat edukiko dute ekitaldiak ospatzeko eta muntatu eta desmuntatzeko egunetarako, 300.000€koa, kontratuaren ondorioz hirugarren pertsonei eta haien ondasunei sortu lekizkiekeen kalte eta galeretatik eratortzen den erantzukizuna babesteko.

Las adjudicatarias deberán contar, durante los días de montaje, desmontaje y celebración de los eventos, con un seguro de responsabilidad civil que ampare la responsabilidad derivada de daños y perjuicios causados a terceras personas y sus bienes a consecuencia de la celebración del contrato por un valor de 300.000€.

4. HIZKUNTZ BALDINTZAK

4. CONDICIONES LINGÜÍSTICAS

Esleipendunek zerbitzua ematerakoan baldintza hauek beteko ditu:

Las adjudicatarias deben prestar el servicio cumpliendo las siguientes condiciones:

Kontratuari lotutako errotuluak, oharrak, seinaleak eta, oro har, hizkuntza-paisaia euskaraz edo ele bitan egingo dira, euskarari lehentasuna emanez (euskara goian edo ezkerrean edo letra lodiz; eta gaztelania behean, eskuinean, txikiagoa edo letra lodiz ez).

Los rótulos, avisos, señales y el paisaje lingüístico en general relacionado con el contrato se realizarán en euskera o en bilingüe dando prioridad al euskera (el euskera arriba o a la izquierda o en negrita; y el castellano abajo, a la derecha, más pequeño o no negrita).

Bi hizkuntzetan oso antzekoa den edo piktogramen bidez transmititu daitekeen mezu edo izen oro euskara hutsean jarriko da.

Todo mensaje o denominación que sea muy similar en las dos lenguas o se pueda transmitir por pictogramas se colocará solo en euskera.

Zerbitzua ematen duten langileek testua edo beste edozein informazio duten identifikazio bat (txartela, plaka, ibilgailuen errotulazioa...) eta/edo uniforme bat eramaten badute testua dutenak, euskaraz edo ele bietan egongo da.

Si los empleados que prestan el servicio llevaran cualquier identificación (tarjeta, placa, rotulación de vehículos…) y/o uniformes que incluyan texto o cualquier información, esta estará en euskera o en bilingüe.

Kontratuaren udal-arduradunekin koordinatzen den enpresako pertsonak euskara nahikoa jakin beharko du,

El coordinador de la empresa con los responsables municipales del contrato debe tener conocimiento de

ahoz zein idatziz, hizkuntza horretan jardun ahal izateko.

Udalari entregatu beharreko kontratuari buruzko barneko agiriak edo ez-publikoak (fakturak, albaranak, memoriak...) euskaraz edo bi hizkuntzatan egin beharko dira, eta euskarari emango zaio lehentasuna (euskara goian edo ezkerrean edo beltzez; eta gaztelania behean, eskuinean, txikiagoa edo letra lodia ez).

Hizkuntz Baldintza klausula honek klausula administratibo berezien pleguko (KABP) KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK ETA OBLIGAZIOAK atalean hizkuntza ofizialtasun bikoitzari buruz xedatutakoa osatzen du. Esleipendunak beti ere Irungo Udalean eta udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko arauei buruzko udal ordenantza bete beharko du, eta baita euskararen erabilera normalizatzeko plana ere. Kontratuaren arduradunari dagokio hizkuntz baldintza hauen kontrola eta jarraipena.

euskera suficiente para llevar a cabo esta interlocución, tanto a nivel oral como escrito, en esta lengua.

Todos los documentos no públicos o internos relativos al contrato, como facturas, albaranes, memorias, etc. que deban entregarse al Ayuntamiento se deberán realizar en euskera o en bilingüe dando prioridad al euskera (el euskera arriba o a la izquierda o en negrita; y el castellano abajo, a la derecha, más pequeño o no negrita).

Esta cláusula de condiciones lingüísticas complementa lo establecido respecto a la doble oficialidad lingüística en la relativa a los DERECHOS Y OBLIGACIONES DEL CONTRATISTA del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares (PCAP). El adjudicatario deberá cumplir la ordenanza municipal sobre normas para la normalización del uso del euskera en el ayuntamiento y municipio de Irun, así como el plan de normalización del uso del euskera. Corresponde al responsable del contrato el control y seguimiento de estas condiciones lingüísticas.